Osakidetza



ADIMEN-DESGAITASUNA DUTEN PERTSONENTZAKO LAN ESKAINTZA PUBLIKOARI BURUZKO OHIKO GALDERAK:

1. Zertan datza Osakidetzaren EPE hau?

Osakidetzak hasitako prozesu bat da, bertako baldintzak betetzen dituzten pertsonek Administrazio honetan lanpostu finko bat lortu dezaten.

2. Non egin beharko nuke lan?

Batez ere, Arabako Unibertsitate Ospitalean, Gurutzetako Unibertsitate Ospitalean, Basurtuko Unibertsitate Ospitalean eta Donostiako Unibertsitate Ospitalean.

3. Nork har dezake parte?

Pertsona hauek:

1- Desgaitasun diagnostiko aitortua izan behar dute: adimen-desgaitasuna eta % 33ko edo gehiagoko desgaitasun-maila.
2- Oinarri orokorretan zehaztutako deialdiaren gainerako baldintzak bete behar dituzte.

4. Adimen-desgaitasunaren balorazioa eskatu dut, baina oraindik ez daukat desgaitasuna aitortzen didan ebazpenik. Eman dezaket izena?

Bai, izena eman dezakezu. Baina, izena emateko unean, desgaitasuna aitortzeko eta baloratzeko prozesuan egotearean justifikanteak aurkeztu behar dituzu.

5. Ordaindu behar dut izena emateko?

Hautaketa-prozesu honetan parte hartzeko izena ematea doakoa da.

6. Zer kategoria sartzen dira deialdian?

- Erizaintzako zaintza osagarrietako teknikari laguntzailea.
- Zeladore laguntzailea.
- Zerbitzuetako langile laguntzailea



7. Ikasketak behar ditut nire burua aurkezteko?

Zeladore laguntzaile eta zerbitzuetako langile laguntzaile izateko aurkezteko, ez da inolako titulazio akademikorik behar.
Erizaintzako zainketa osagarrietako teknikari laguntzaileen deialdira aurkezteko, beharrezkoa da erizaintzako zaintza osagarrietako teknikari titulazioa edo baliokidea izatea.

8. Nola aurkeztu eskabidea?

Bi modutan eman dezakezu izena:

1- Online, Osakidetzaren webgunean ezarritako jarraibideei jarraituz.

2- Aurrez aurre, inprimakia paperean entregatuta, honako leku hauetan:

BIZKAIA

Bilbo-Basurtuko ESIa
Basurtuko Unibertsitate Ospitalea
Montebideo etorbidea 18 - 48013 Bilba
Gobernu Pabiloia, beheko solairua.
Ordutegia: 08:00etatik 15:00etara.

Ezkerraldea-Enkarterri-Gurutzetako ESIa
Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea
Administrazio Eraikina, 0 solairua (Erregistro Orokorra).
Ordutegia: 08:00etatik 15:00etara.

GIPUZKOA

Donostialdeko ESIa
Donostia Unibertsitate Ospitalea Donostialdea ESIko Erregistro Nagusia
(Gipuzkoa eraikinaren eranskina) Begiristain doktorea z.g. 20014 Donostia
Ordutegia: 8:00etatik 15:00etara.

ARABA

Osakidetzako Zuzendaritza Nagusia
Araba kalea, 45 - Gasteiz
Hautaketa eta Horniketako Harrera Zerbitzua
Ordutegia: 8:00etatik 15:00etara.



10. Egokitzapenak eska ditzaket azterketa egiteko?

Bai.
Parte hartzeko eskaera egiteko unean adierazi behar duzu, eskabide-inprimakian horretarako dagoen laukia betez. Hor adierazi beharko duzu zer egokitzapen behar dituzun.

11. Zer egokitzapen mota eska ditzaket?

Besteak beste:

- Azterketa egiteko denbora gehiago.
- Jarraibideak ulertzeko laguntza.
- Materialak egokitzea.
- Desgaitasunarekin lotutako beste neurri batzuk.

Banan-banan aztertuko da eskabide bakoitza .

12. Nolakoa izango da azterketa?

Test motako galdetegia izango da, eta 40 galdera izango ditu.

13. Erantzun okerrek punturik kentzen dute?

Ez.
Erantzun okerrek ez dute penalizaziorik ekarriko.

14. Zenbat galdera asmatu behar ditut gainditzeko?

Gutxienez 20 galdera.

15. Non ikas dezaket?

Osakidetzak 150 galderako sorta bat argitaratuko du kategoria bakoitzeko, 50 galdera gai-zerrenda komunari dagozkionak eta 100 galdera gai-zerrenda espezifikoari dagozkionak. Horietatik, 40 galdera agertuko dira azterketan, hitzez hitz.
40 galdera horietatik, 10 galdera gai-zerrenda komunari dagozkio, eta 30, berriz, gai-zerrenda espezifikoari.

Bateria horiek egokituta egongo dira, ulerterrazagoak izateko.



16. Noiz argitaratuko dira ikasteko galderak?

Azterketa egin baino 12 aste lehenago, gutxienez.

17. Azterketa euskaraz egin dezaket?

Bai. Azterketa euskaraz edo gaztelaniaz egin dezakezu.
Eskaera aurkeztean adierazi behar duzu zer hizkuntza duzun nahiago. Hala ere, iritziz aldatzeko aukera izango duzu azterketaren egunean bertan, eta beste hizkuntzan egin.

18. Euskara baloratzen da?

Bai. Euskara jakiteak 2 puntu gehitzen dizkio azterketaren notari.

19. Nola egiazta dezaket ezagutza hori?

3 eratara:

- Euskarako B1 tituluaren jabe izanda. Osakidetzak ofizioz egiaztatuko du titulu hori duzula edo, bestela, aurkezteko eskatuko dizu.
- Azterketa euskaraz eginda. Azken puntuazioari bi puntu baino ez dizkio gehituko, eta ez du ofizialtasunik izango. Hau da, hautaketa-prozesu honetako azterketako notari bi puntu gehitzeko baino ez du balioko.
- Prozesu honen esparruan IVAPek egingo duen deialdi espezifikoan B1 titulua lortuta.

19. Zer gertatuko da gainditzen badut?

Gainditu dutenen zerrendan agertuko zara, puntuazioaren araberako ordenean. Izangai bakoitzaren azken puntuazioa azterketaren notaren batura izango da (zuzen erantzundako galderen kopurua eta, hala badagokio, euskarako notaren (2 puntu) batura)
Azken puntuazio onena duten pertsonek eskainitako destinoak aukeratu beharko dituzte.

20. Lan egin nahi dudan tokia soilik hautatu dezaket, edo nahitaez aukeratu behar al ditut eskaintzen dizkidaten leku guztiak?

Eskainitako destino guztiak aukera ditzakezu, edo soilik interesatzen zaizkizun lekuak.

Beraz, ez zaude behartuta zure interesekoak ez diren destinoak hautatzera, dela zure bizilekutik urrun daudelako, edo lanpostuaren ezaugarriengatik, funtzioengatik, edo bestelako arrazoiengatik, bertan lan egin nahi ez duzulako.

<u>Destino guztiak ez aukeratzeak ez dakar zehapenik.</u>



Hautaketa lehentasun-hurrenkeraren arabera egin beharko da. Lehenengo, gehien gustatzen zaizuna, eta azkena, gutxien gustatzen zaizuna.

Destinoak izangai bakoitzak puntuazioen rankingean duen posizioaren arabera egindako hautaketaren arabera esleituko dira.

Beraz, esleipena zure puntuazioaren eta libre dauden plazen araberakoa izango da.

21. Zer da osasun-azterketa?

Prebentzio-zerbitzuak egindako balorazioa da, lanpostuaren eginkizunak bete ditzakezula egiaztatzeko eta beharrezkoak izan daitezkeen egokitzapenak identifikatzeko egiten dena.

22. Zer gertatzen da prozesuan parte hartzen badut, baina plazarik ez badut?

Azterketa egin duten parte-hartzaile guztiak lan-poltsa batean sartuko dira, etorkizunean aldi baterako kontratazioak egiteko.

23. Non argitaratuko dira emaitzak?

Osakidetzaren web-orrian.

24. Nola izango dut data garrantzitsuen berri?

Data, ohar eta emaitza guztiak Osakidetzaren webgunean argitaratuko dira.
Garrantzitsua da maiz kontsultatzea.

25. Non argituko ditut zalantzak?

Hautapen-prozesuari buruzko informazio guztia Osakidetzaren web-orrian argitaratuko da.
Hala ere, zalantzarik izanez gero eta gorabeheraren bat gertatuz gero, inoren laguntza behar baduzu, **deitu edo bidali whatsapp bat 670 504 073 telefonora, lanegunetan, 8:00etatik 14:00etara.**